

PuLunPe

174. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



* 2018ko argazki lehiaketaren irabazlea (Alfredo García-Falces Larrañeta)

“Airea: lup lara” Katixa Dolhare-Zaldunbide

*Populiaren makila hintzan
Ezagutu ez dudan garaian
Krudelegi jokatu hondarrean
Erabaki ona hartu huan*

*Isilarazirik armen hotsa
Entzunik herriaren otoitza
Bake bizitzari utziz hatsa
Aska dadila jendearen hitza*

*Nork zer irabazi ta zer galdu
Gordetakoa nola zabaldu
Gezur egiak nola ulertu
Beste gizaldiak erranen du*

*Gatazketatik datoz gastuak
Baztertze ta sakrifizioak
Gobernu zitalak ohartuak
Horretan dira aberastuak*

*Beldurra digute merke saltzen
Berek elkorrena egiten
Baina Historia aitzinatzen
Gizarteak du inposaturen*

*Zuzentasun gosez gaude ezta
Nun deabru dago solaskidetza
Kexu daude zezen ta oilarra
Jendartu baitzaie etsai basa*

*Euskal Herriaren eraikuntza
Ez dezagun burutu totelka
Mintzoa bada gure indarra
Erna euskaldun ele anitza*

*In nomine matris et filiae
Etorkizuna nahi nuke eme
Iuris, veritatis et linguae
Umorean ere daukat fede*

*Itsu okerre erran nahian
Kanbon zaudete Euskal Herrian
Errobi ibaitik dugun edan
Biziberritzearen izenean*



Pulunpe banatzaileak Basaburuan barna egindako ibilaldian

Leontzio Uharte soinu-jotzailearen gidaritzapean hor ibili ginen, maiatzaren 19an, larunbatarekin, Beruete, Aizarotz eta Arrarasko aldapetan gora eta behera, goizez.

Berueteke ostatuan egin genuen bazkaria eta arratsalde berandu artio egon ginen, lehenik soinu eta dantza aterpean, eta gero plazan, eguzki epel goxoaren babesean, solasean. Egun ederra bota genuen.



Hemen ibilaldiko gehientsuenak, Arrarasko Petxagako gaztainondo paregabearen aurrean. Basaburuan ba ote da handiagorik? Hainen handi eta eder behintzat, nekez!

Goiti, kakulliko: Leontzio Uharte
Zutik: Itziar Mariezkurrena, Maria Angeles Oartzun, Edurne Villanueva, Edurne Etxeberria eta Pili Etxeberria

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: Lur Gil Rey eta Itziar Perez Argomaniz

Maketazioa: Lur Gil Rey

Tirada 1.600 ale | Inprimategia: Gertu

Lege gordailua: NA 721/93

Inprimategira Ekainaren 19an bidalia



HORMARA

Ekaina - Junio

Erakusketa / Exposición

Del 1 al 28 de Junio / Ekainaren 1tik 28ra

Mila Boj

Estampando lo que veo a pie de calle.

Es una muestra de trabajos con distintas técnicas de grabado, serigrafías, litografías, punta seca.

Kalean ikusten dudana inprimatuz.

Serigrafiaz, litografiatuz, punta lehoraz eta grabatzeko beste hainbat teknikaz egingiko lanen erakusketa.



19:00 Larraintzarko Bentan

8

GAZTELERAZ (CASTELLANO)



3€

Apuntarse previamente en el
948-30 5353. Plazas limitadas.
Izena eman 948-30 5353
telefonoan. Plaza mugatuak.

ARDO DASTAKETA LITERARIOA CATA DE VINO LITERARIA

Literatura y vino, una mezcla inmejorable. De la mano del escritor Carlos Olló (que ha combinado estos dos elementos en su última novela, A la luz del vino), y del experto en vino, Alberto Dito, podremos degustar una buena selección de caldos y autores que nos ayudarán con sus explicaciones a saborear este maridaje perfecto entre enología y novela negra.

Literatura eta ardoa, konbinazio hobezina. Carlos Olló idazlearekin eta Alberto Dito ardoan adituarekin hainbat ardo eta egile dastatzeko aukera izango dugu. Ollók bi osagai hauek, ardoa eta literatura, lotu ditu bere azken eleberrian, A la luz del vino. Biek beraien azalpenaz nobela belfiza eta enologiaren arteko harreman perfektua gozatzeko lagunduko digute.



18 urteetatik
aurrera
Mayores
de 18 años

15 20:00 16 17:30 20:00 Larraintzarko Bentan

15-16

GAZTELERAZ (CASTELLANO)



5€

Antzerkia AXOLAGABE Teatro

Eloisa almindrondo baten azpian dago

Zintzutasunik gabeko bi familia, Brionestarrak eta Ojedatarrak. Hamabi pertsona, bakoitza bere harrikadarekin.

Sei aktoreak: Bego, Mamen, Ainara, Elena, Marisol, Julia. Hiru aktore: Alfonso, Mikel, Fran. Zuzendaria: Isa. Gure kolaboratzaileak: Amaia, Jesús Mari, Cris, Amparo, Rosi, Gloria... eta beste batzuk.

Eloisa está debajo de un almendro

Dos familias, en las que la cordura brilla por su ausencia, los Briones y los Ojeda.

Doce personajes, cada uno con su pedrada.

Seis actrices: Bego, Mamen, Ainara, Elena, Marisol, Julia. Tres actores: Alfonso, Mikel, Fran. La directora: Isa. Nuestros colaboradores: Amaia, Jesús Mari, Cris, Amparo, Rosi, Gloria... y demás.



10 urteetatik
aurrera
Mayores
de 10 años

18:00 San Urbano

22



Izena eman
948-30 5353 telefonoan
Apuntarse previamente
en el 948-30 5353

BAÑO FORESTAL - SHINRIN YOKU

"Sumérgete en el bosque y déjate ser"

Javier Gómez Garrapoko ingurumen-hezitzaileak basoaren erreflexuaren bidez geure burua deskubritzeko aktibitateak proposatzen ditu. Basoak bere gardentasun eta zintzotasunez geure burua berriz konektatzen, sortzen eta pentsatzen laguntzen ditu. Basoan ibilaldi gidatu bat egingen dugu eta jateko ekarri duguna partekatzen bukatuko dugu.

Javier Gómez, Educador ambiental de Garrapo, nos propone una actividad para descubrirnos a través del reflejo del bosque. El bosque transparente y sincero nos ayudará a reconectarnos, regenerarnos, repensarnos... Se realizará un paseo guiado por el bosque y acabaremos merendando compartiendo lo que hayamos traído.

19:00 Larraintzarko Bentan

30



DANTZA TA MUSIKA AFRO IKUSKIZUNA ESPECTACULO DE MUSICA Y DANZA AFRO

Afrikako mendebaldeko perkusio tradizionala. Hiru lagunaren arteko solasaldia. Mingaina Djendea eta perkusioa hizkuntza.

Música tradicional de la zona occidental de África. Diálogo entre tres compañeros. El Djembe es la lengua y la percusión el idioma...



MUSIKA, DANTZA, ANTZERKI EDO ARTEAREN
MUNDUAN ARITZEN BAZARA, LAGUNTZA
EKONOMIKORIK BEHAR AL DUZU?



ARTE-KULTURA ETA KIROLEITARAKO DIRU-LAGUNTZAK

Info gehiago/más información:
- Ultzamako udaletxean
- ultzama.eus web orrian
- 948.305353 telefonon

PILOTA, FUTBOLA, ERRUGBI, ESKALADA EDO BESTE
EDOZEIN KIROLETAN ARITZEN BAZARA, LAGUNTZA
EKONOMIKORIK BEHAR AL DUZU?



ARTE-KULTURA ETA KIROLEITARAKO DIRU-LAGUNTZAK

Info gehiago/más información:
- Ultzamako udaletxean
- ultzama.eus web orrian
- 948.305353 telefonon

HORMARA!

ORGANIZAZIOTZAILERAK:
VIR BOCANE DE NAVARRA
NAFARRAKO VIR BOCANE

2016ko irailaren 24an
gertatuko da

• Dendak eta konpainiak
• Baserriak eta baserriak
• Baserriak eta baserriak
• Baserriak eta baserriak

PATROCINAK/BARREKAK:
Baserriak eta baserriak
Baserriak eta baserriak

COLABORAKO/LAGUNTZAILERAK:
Baserriak eta baserriak
Baserriak eta baserriak

Informazioa/Información gehiago:
<https://www.patrocinaoan.com>

Udako Eskaintza 2018



aek udako plazer txikiak
pequeños placeres de verano

Euskara ikastaroak
Cursos de euskera

EUSKALTZUAK
Euskara ikastaroak
Euskara ikastaroak

2 ASTKO BARNETZUAK
Euskara ikastaroak
Euskara ikastaroak

FAMILIA BARNETZUAK
Euskara ikastaroak
Euskara ikastaroak

BARNETZU BILTARAK
Euskara ikastaroak
Euskara ikastaroak

www.aek.eus
ultzamarengatik@ak.eus / 948.305.100 / 948.305.100

GARTZARONGO SAGARRIN PILOTA TXAPELKETA
KONBIDAPENA - INVITACIÓN

Desde el Club filial TokiAlai de Gartzaron se invita a participar en el 34º Campeonato de Pelota a Mano.

El campeonato comenzará el día 22 de julio, y la fecha tope para apuntarse será el 5 de julio.

Weskak (Irakila): pilota mixtaren txapelketa mixta
Baserriak eta baserriak
Baserriak eta baserriak

Apuntar individualmente poniendo la edad y el club; la organización hará las parejas

Umeak (alevines): 2006-2007 urtekoak
Haurrak (infantiles): 2004-2005 urtekoak
Gazteak (Cadetes): 2002-2003 urtekoak
Gazteak (juveniles): 2000-2001 urtekoak
Helduak (Mayores): 2000 gorakoak

HARREMANETAN JARTZEROKO (para inscribirse)
e-mail: tokiailaipilota@gmail.com
Móvil: 659443664 (Mikel)

Besterik gabe (Sin más), agur berri bat, laister arte.

Gartzarondik, maiatzak 31an
TOKIALAI ELKARTEA



PINTXO POTE
2€

OSTIRAL
ETA
LARUNBAT
GUZTIETAN

20:00etatik
21:30etara

AIZAROKO OSTATUAN

EUSKARALDIA
11 EGUN EUSKARAZ

BASABURUA-IMOTZ
EUSKARALDIAREN
AURREZPENAK
EKAINAK 22

AIZAROKO HERRIKO ETXIAN - 19:00ETAN



LARRITZ APARDOZ (ETA ENERO GORRI)
ONKORRA LANTZA EGONEN DA
BERRI-2012
BETE OTATUAN BASABURUA-ITA-IMOTZ-AREN ETA-ILARRI-PROIEKTUA

"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak...
ZATOK DINAMIZAZIO BATZORDERA!
Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitetz!
Email bidez informazioa jasotzeko: kulturamugi@gmail.com"

Alfredo Garcia-Falces Larrañeta, argazki lehiaketan bigarrenenez txapeldun

“Aharia” izeneko argazkiarekin lortu du lehenengo saria, eta hirugarrena ere lortu du “Egunsentiko distira” argazkiarekin. Orrialde honetan dituzue biak.

1



3



Alfredo garcia-Falces Larrañeta

Joan zen urteko irabazlea izan zen ere lizasoarra. webgunean irakurgai duzue berari egindko elkarrizketa.

“Albokaria” izan zen joan zen urteko argazki saritua, aurtengoan bezala, detaile txikiak hartzen zituen argazkia.

Lorea Basterretxea Rodríguez, bigarren sailkatua

“Naturaren boterea gustatzen zait. Hain handia ikusi nuen gaztainondoa, goruntz joango balitz bezala, zerurantz, bizitza aurrera doan moduan”

Lorea Basterretxea Rordríguez izan da Pulunpeko Argazki Lehiaketaren bigarren sariduna. Harriduraz hartu du berria, selektibitate bezperan, 18 urteko irazioztar honek. Izan ere, nahiz eta betidanik gustatu zaion argazkilaritza, lehiaketara aurkeztu den lehen aldia da. Larraintzarko ikastetxean bukatu berri du bigarren batxilergoa, ohorezko matrikularekin, eta oraindik ez du erabaki zer ikasiko duen, baina medikuntza atsegin du. Aldi berean, argazkilaritza ikastaroren bat egitea gustatuko litzaioke egunen batean.

Non egin zenuen argazkia?

Hemen, etxetik gertu, Iraizotz eta Eltzaburu artean badago borda bat, eta bide horretatik joaten naiz gaztainak hartzera. Paseatzen nenbilen, gaztainak hartzen eta ikusi nuen zuhaitza eta argazkia atera nion gaztainondoari.

Deigarria da ikuspuntua, behekaldeetik aterata, nola bururatu zitzaizun?

Argazkiak ateratzen ari nintzen eta bat-batean ikusi nuen gaztainondoa horrela, hain handia, ikusi nuen argazki hori ateratzeko aukera, ikuspuntu horretatik aterata ikusten zen zuhaitza goruntz joango balitz bezala, zerurantz, hostoekin batera, bizitza aurrera doan moduan. Ikuspuntu horrek transmititzen zuena gustatu zitzaidan.



Zerk eragiten dizute zuhaitzek?

Natura asko gustatzen zait, mendian ibiltzea, argazkiari “Amalurra” izena jarri nion, horregatik, ikusten delako naturaren boterea eta nola aldatzen diren zuhaitzak urtaro batetik bestera, udazkenean, neguan eta udaberrian erabat ezberdinak dira. Naturaren indarrak erakusten du horrek, eta gustatzen zait ideia hori.

Argazki lehiaketara aurkeztu zaren lehenengo aldia da?

Bai. Lehenengo urtean ere ikusi nuen lehiaketaren deialdia, baina azkenen ez nuen denborarik izan argazki bat ongi prestatzeko, azken momentuan ikusi nuelako. Orduan, hurrengo urterako utzi nuen, eta aurten ongi prestatzeko denbora hartu dut. Lehenengo aldia izanda, sorpresa handia hartu dut!

Ez zenuen espero?

Ez, batere ez. Betidanik gustatu zait argazkiak ateratzea, baina hasi berria naizela esan dezaket, duela 3 urte erosi nuen nire lehendabiziko argazki kamera ona. Kriston sorpresa izan da, gainera aurreko urteko irabazleak ikusita, badago maila altua Pulunpeko argazki lehiaketan, eta ni hasi berria izanda...

Zure kabuz ikasten duzu?

Bai, nire kabuz, ez dut ikastarorik egin, intuizioz ateratzen ditut argazkiak.

Eta ikastaroren bat egitea gustatuko litzaizuke?

Bai, aurrera egiteko dena da ona, teknika ikasteko gustatuko litzaizuke, bai.

Trataerarik izaten dute zure argazkiak, inprimatu baino lehen?

Ez, argazkia irudian agertzen den bezala atera nuen. Horrela nahiago ditut, askotan ez ditut batere editatzen. Batzuetan bai kolorea, argitasuna aldatzen dut, baina kasu honetan horrela atera nuen eta asko gustatu zitzaidan, horrela, zegoen bezala.

2



Gazteen sormen artistiko eta kulturala babestu nahi du Ultzamako Udalak, diru-laguntzen bitartez

Ilido beretik, kirol jarduerari zuzendutako diru-laguntzak eskaintzen ditu.

Helburua, gazteek asmatutako proiektu originalak, betiko kontuetatik ateratzen direnak, bultzatzea da. Horretarako diru-laguntzak eskaintzen ditu Ultzamako Udalak. Arte Ederrak ikasi eta bere proiektuak aurrera eramateko dirurik ez duen gaztea edota diziiplina artistikoren batean trebea eta ideia berriak dituen, esate baterako, lagundu nahi ditu. Hori helburu nagusia izanik, edo-nork parte har dezake deialdi honetan, gaztea izan edo ez. Eskaera egiteko epea ekainaren 23an amaitzen da.

2.500 euro daude proiektu kultural eta artistikoen-dako. Horietaz gain, beste 2.500 euro eskeintzen dute diru-laguntzek, kirol jarduerendako. Baina, laguntza lortzen duen pertsona edo entitate bakoitzak 1.250 euro eskuratu ahalko ditu gehienez, eta laguntza jasotzen badute, Ultzaman aurkeztu beharko dute proiektua. Hautaketan, Ultzaman erroldaturikoak, gazteendako egiten diren proiektuak, euskararen erabilera sustatzen dutenak, eta genero ikuspegia kontuan hartzen dute-



nak onetsiko dira. Artistikoen artean, baita diziiplina ezberdinak nahasten dituztenak. Kirolen artean, esku pilota edota herri kirolak sustatzen dituztenak.

Kilometro bertikaletako Espainiko txapeldun izan da Mikel Beunza beterano mailan

Ez dute etenik gure kirolarien lorpenek mendi lasterketetan. Geroko orrialdeetan Maria Iraizoz egindako elkarri-zketa izanen duzue, Zazpimendi mendi-maratoia irabazi ostean, eta lerro hauetan, Mikel Beunzak izandako lorpenaz arituko gara.

Arredondon (Cantabria) izan zen kilometro bertikalen Espainiako txapelketa, eta Nafarroako selekzioa ordezkatzu joan ziren, bes-


teak beste, Mikel Beunza eta Lucia Oskoz ultzamarrak zein Imanol Kañamares ateztarra. Mikelek kronika bat idatzi digu:

“Mosquiteru mendira (1206m) igoeran zetzan lasterketa. 1004m-ko desnibeleko ibilbide oso gogorra zen, 2,7km-an egin beharrekoa, eta %37-ko bataz besteko penditzarekin. Bertara joan ginen Orkingo Lucia oskoz eta biok Nafarroako selekzioarekin. Joan zen urtean

ere han izan zen txapelketa, eta ibilbidea ezagun nuen, horrek lagundu egin zidan. Helburua beteranoen kategorian emaitza txukuna lortzea zen, eta maila onean joan nintzen. Ongi atera zen lasterketa eta txapelketa irabaztea lortu nuen. Ez nuena espero kategorian absolutuan podiumera igotzea zen, baina 3. sailkatzea lortu nuen, poz handiarekin. Azpimarratzekoa da Lucia Oskozek promesa mailan lortutako laugarren postua.”



Mikel Beunza podiumean



Mikel Beunza



Lucia Oskoz



Larraintzarko ikastetxeko ikaslea, Erika Goya Larrayoz, matematika olinpiadetan saritua

Maiatzaren 20an matematikako olinpiadak izan ziren Tuteran, Tornamira Matematikako Irakasleen Nafar Elkarteak antolatuak. Bertan, 13 urteko Erika Goya Larrayoz eltzaburuarrak lortu zuen hirugarren saria. Larraintzarko ikastetxean 2. DBHko ikaslea da Erika, eta Berako Mikel Prieto ikaslearekin osatu zuen bikotea, “ez genuen elkar ezagutzen baina oso ongi moldatu ginen, elkar lagundu genion”, dio Erikak.

Biok batera 49 ikastetxeko 145 ikasleren artean lortu zuten hirugarren postua, sinestezina Erikaren arabera: “ez genuen espero, ondo pasatze-
ra besterik ez ginen joan, hainbeste ikasleren artean irabaztea ezinezkoa ikusten genuen, horregatik oso lasai egin genituen ariketak. Gure izenak entzun genituenean, ezin genuen sinetsi, oso pozik gaude”. 6 problema

ebatzi behar zituzten, ezagupenaz gain, logika, sormena eta arrazoi-
namenduaz baliatuz lortu behar zituzten erantzun zuzenak. Pasa den olinpiadetako ariketak egin zituzten Larraintzarko ikastetxean, nor bidali erabakitzeke, eta Erika Goya Larrayoz izan zen hautatua 4 gelakide-
ren artean, “matematikak gustatzen zaizkit, bai, etzaizkit batere aspergarriak iruditzen”, dio.

Eta hau ez da Larraintzarko ikastetxetik datorkigun berri bakarra. Jakin berri dute 2. batxilergoko bi ikaslek Ohorezko Matrikula eskuratu dutela: Iraizozko Lorea Basterretxea eta Arraizko Sergio Beltrán. Ohorezko Matrikula bakarra eman daiteke 20 ikasleren artean, eta notarik hoberena duenak lortzen du, 9tik gora beti ere. Aurten, beraz, bi ikasle hauek eskuratu ahal izan dute Larraintzarko ikastetxean.



Udaberriko erromeriek jende ugari bildu dute aurten ere

Eurite garaia izateaz gain, erromeria garaia da ere udaberria. Hainbat herritako biztanleen elkargune bilakatzen dira baselizak, batzuentzat erlijioa arrazoi eta besteentzat giroa, bazkaria edo egunpasa helburu.

Anueko bizilagunak Etsaingo Basagaitz ermitara joan ziren. Ohitura den bezala, herriko gaztetxoak gurdi gainean igo ziren aurten ere, horren lekuko eskuineko argazkia.



Ultzama eta Xulapaingo gazteak, asto haragizko zikiroa egiten

Ultzamarrak, aldiz, Arañotzera igo ziren. Ermitaren inguruko herrietakoak joan ziren bertara. Eta Odieta zein Atezko bizilagunak Santurben elkartu ziren, Xulapaingoekin batera.

Orokorrean eguraldia lagun izan zuten, eta ekitaldi guztiak egin ahal izan zituzten: Bazkariak, musika, dantza, meza, pintxoak, postutxoak, eta abar luze bat.



Etsaingo gazteak gurdi gainean igo ziren Basagaitz ermitara



Basaburuak eta Imotzek ize- na eman dute Interneterako sarbide-eremu publikoak eta libreak lortzeko Europako WIFI4EU ekimenean



Europar Batasunak martxoan abiarazi zuen 'WIFI4EU' bonua, eta maiatzan izan da eskaera egiteko epea. Horren bidez, 15.000 euroko finantzaketa lortu daiteke abiadura handiko Interneterako sarbide-eremu publikoak eta libreak martxan jartzeko. Laguntzak beharrezkoa den azpiegituraren gastuak estaltzen ditu. Udal-erriek, berriz, Interneterako konexio-zerbitzua jarri behar dute. Bonuak ekipo berriak erosteko edo material zaharkitua berritzeko ere erabil daitezke.

Europar Batasunak Europako Agenda Digitaleko helburuak lortzeko ekintzen barruan kokatzen da 'WIFI4EU'; hau da, 2020. urterako, Europako herritarren ehuneko ehunari ari 30 Mbps-ko abiadura handiko konektibitatea ematea, eta zerbitzu digitalak bultzatzea, ETEen konektibitatea hobetzea, eta herritarrei zerbitzu hobeak ematea.

Gaur arte, Europar Batasun osoko 16.658 erakunde erregistratu dira programan, eta Nafarroan, dagoeneko, 46 udalek eman dute izena.

Basaburuko BTT martxa giro ederrean



Basaburuko mendi bizikleta martxaren beste edizio bat izan dugu, eta aurtengoan eguraldi ezin hobeak lagunduta, nahiz eta ez den normalena izan udaberri honetan.

140 parte-hartzaile aritu ziren Basaburuko pista eta xendatan barna, antolatzaileek diseinatutako distantzia ezberdineko bi ibilbideetan. Horietakoen ia erdia Gipuzkoatik etorriak izan ziren, geroz eta gehiago dira bertatik hurbiltzen direnak. Emakumeak sei izan ziren, hiru ibilbide luzean eta beste hiru motzen.

Luisito Arraratsek giroa ezin hobea izan zela aipatu digu, lasterketa amaieran giro polita sortu zen pintxo artean, eta bi istripu izan ziren arren (bat Iruñeko ospitalera eramane zuten, bestea Larraintzarra), arazorik gabeko eguna izan zen. Eskertza berezia eman nahi izan die Udalari, enpresa laguntzaileei eta boluntarioei, 50etik gora izan baitziren!

LASTERKETA LUZEKO SAILKAPENA: AURRENE- KO HIRURAK ETA ESKUALDEKO GUZTIAK:

1. Nerea Gabirondo de la Hera	URRETXU
2. Miren Anaut Izko	UHARTE
3. Ainhoa Azpirotz Ugartemendia	LEITZA
1. Joxemi Mujika Iraola	ANDOAIN
2. Mattin Sanzberro Perez	HERNANI
3. Alberto Sarasa Erice	MUSKITZ
6. Asier Juanbeltz Astiz	BERUETE
12. Haritz beloki Astiz	IMOTZ
13. Iñaki Iribarren Barberena	SUARBE
14. Jabi Beunza Osakain	ELTSO
16. Mikel Iriarte Olló	IMOTZ
22. Oscar Ilarregi Andoaga	AUZA
25. Patxi Iribarren Mutuberria	ELTZABURU
26. Jose Ramon Berasain	AUZA
27. Ander Biurrarena Beloki	UDABE
47. Mikel Aingeru Goñi Erice	ARRARATS
54. Mikel Martin Garijo	BEUNTZA
58. Andoni Aldalur	AIZAROTZ
85. Iker Etxeberria Ziganda	GASKUE
86. Javier Martinez	IGOA



Jendetza bildu zuen Basaburuko egunak

Jauntsaratsen ospatu zen ekainaren 2an, Iriber elkar-teak antolatua. Frontoian egin zen herri bazkarian 165 bizilagun bildu ziren, horietatik 30 bat ume. Ar-gazkian ikusten den bezala, zikiroa izan zen plater nagusia. Baina festa goizeko 11:00etan hasi zen gosariarekin,

gero esku pilotako partidak eta aizkora apustua ere izan ziren. Joxe Angelen musikak alaitu zuen giroa eta bazka-ria eta gero Nomada Zirkua ikusi ahal izan zuten gertu-ratu zirenek. Afaltzeko bokatada egin zuten eta JO ETA TXOrekin gaupasa.



Ikasle euskaldun eleanitzak sortuz egitasmoak Hizkuntza Proiekturako galdeketa bildu ditu gure eskualdean



Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzea da Hizkuntza Proiektuaren helburua, betiere, euskara ardatz hartuta. Horretarako ikasle horien funtzio komunikatibo guztietan euskararen erabilera sustatzea da proiektu horren asmoa, eta egiteko horretan gizarte eragile guztien inplikazioa ezinbestekoa da. Oraingoz udalen, eskola komunitatearen eta gizarte eragile batzuen konpromisoa lortu

dute. Bigarren pausoa egoeraren ahalik eta diagnostiko zehatzena egitea da; izan ere, gure eskualdean, internet bidez bete beharreko galdeketa bat zabaldu dute eta 300 pertsona inguruk erantzun dute. Diagnostiko horren emaitzak eskuan, heldu den ikasturterako erronka egoera hori hobetuz joateko plana diseinatzaz hasia izanen da. Mila esker galdetegia bete duzuen guztioi.

De Rerum Natura



Aurrekontuen %41 inbertsioetarako erabiliko du Basaburuko Udalak

Ihabengo ur sarea berritzeko eta Basaburuko errepidean internet zuntzarako azpiegituren obrak dira diru gehien eskatzen dutenak. Gainera adinduentzako lokal bat egingo da Apeztegi berriko lehenengo pisuan.

Pasa den maiatzaren 19an onartu ziren, Ohianzabalen egindako batzar ireki batean. Inbertsioak guztira 490.600 euro dira, horietatik 281.400 diru-laguntzekin ordainduko dira. “Portzentajea altua da inbertsioetarako, eta oso ongi dago proiektuetan inbertitzea, baina kopurua asko igo da bi obra handi egingo ditugulako”, azaltzen du Esther Lakasta Basaburuko alkatea. 15 bat bizilagun bildu ziren batzarrean, nahiz eta inguruan bestelako ekintzak antolatu ziren: “kopurua erlatiboa da, egia da gaia ez dela erakargarriena eta ez gurela data egokiena aurkitu, baina mugitua den Basaburua bezalako herri batean jende gehiago etortzea gustatuko litzaidake”, onartzen du Lakastak.

Inbertsioak

Esan bezala, bi obra dira bereziki handiak eta diru gehiago behar dituztenak, baina Nafarroako Gobernuak Toki Inbertsioen Planak finantzatzen ditu zati handi batean.

Alde batetik, Ihabengo ur sarea berritzeko obra, ia 132.000 eurokoa. 92.000 euroko laguntza izango du eta 40.000 euro kontzejuak jarriko du.

Bestetik, internet zuntzarako azpiegituren obra, Basaburuko errepidean. Ez dute, momentuz, internet

sarea herrietara eramango, azpiegiturak prestatuko dituzte, aurrerago zuntza jarri ahal izateko. A-15 eta N-121 errepideak lotuko ditu, Basaburua eta Ultzama zeharkatuz. Udala negoziaketetan aritu da Nafarroako Gobernuarekin, herrietatik ahalik eta gertuen pasatzeko eta hasieran zati txiki bat besterik ez zuelako hartzen. Horrela, Gartzaroneraino iristea lortu dute, Gobernuak begi onez hartu baititu aldaketak. Obrek 240.500 euroko aurrekontua dute eta 168.300 euroko diru-laguntza jasoko dute. Irailean hasiko dira baina, ez dute aurtan bukatuko.


Halaber, Apeztegi berriko lehenengo pisuan adinduentzako gela bat egokituko dute, 74.200 euroko gastua izango duena, 20.000 euroekin lagunduta.

Gastuak

Langilegoaren soldaten atala 255.000 euroko gastuek osatzen dute, guztien %21: “gastuak igo dira, hiru langile berri daudelako haur eskolan. Hala ere, aldi berean, sarrerak igo dira, haien soldatak diruz lagunduta daudelako”. Izan ere, haien soldaten laurdena bakarrik ordaintzen du Basaburua, gainontzekoa Nafarroako Gobernuak.

Oro har, pozik agertu da kontu eta aurrekontuekin Esther Lakasta alkatea: “kontuena bete dugu eta


2018ko Gastuak %





Bigarren zozketaren irabazlea iragarri amaitu da “Irakurri, Gozatu eta Oparitu” egitasmoa

Ekainaren 1ean egin zuten zozketa, eta irabazlea Ibai Urriza da, 6 urteko Gaskueko semea. 30 euroko txekia jaso du liburu-dendan euskarazko liburuak erosteko. Barbantxo liburuarekin hartu zuen parte zozketan, izan ere, horretan datza “Irakurri, Gozatu eta Oparitu” egitasmoak: euskarazko liburu bat Ultzamako liburutegian hartuz gero, fitxa bat bete eta liburu bat erosteko %35eko deskontua jasotzeaz gain, zozketan parte hartu dezakezu. Apirilean izan zen lehenengo zozketa eta bigarren honekin bukatu da egitasmoa hurrengo urtera arte. Hamasei lagunek parte hartu zuten apirilean eta bigarren honetan hogeik.



Ibai Urriza eta Eneko Errezabal

Joana Ziganda Olano oskozarrak Nafarroako Ikastolen Elkartaren JUUL literatura saria jaso du

Ni neu galtzeta haur ipuinaren egilea eta Haur Hezkuntzako irakaslea den Joana Ziganda Olano oskozarra; izan da Nafarroako Ikastolen Elkartek urtero antolatzen duen hauteskunde literarioetan bozkatuenerarikoa bat. Haur eta gazteen artean egiten da galdeketa, eta aurten, guztira, 23.000 boto eman dituzte 54 ikastolako ikasleek. Joana Zigandarekin batera, Olga de Dios, Paddy Rekalde, Ana Jaka, Estibaliz Vivanco, Lur Gallastegi, Castillo Suarez, Jasone Osoro, Jon Arretxe, Josu Mitxelena eta Joseba Larratxe ‘josevisky’ izan dira idazle eta ilustratzaile hautatuak. Sari banaketa Nafarroa Oinez antolatzen ari den ikastolarekin egiten da, horregatik, 20. edizio hau Altsasun antolatu du Iñigo Aritza Ikastolak. Bertan egon zen, besteak beste, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Kontseilari eta Gobernuko eledun, Maria Solano.



Iritzia: “Gure proportzioak”

Nik esan gabe ere badakizue Espainiako Justizia ez dela proportzionala. Ostiralean erakutsi zuen Altsasuko gazteen aurkako sententziak, eta grafikoki adierazi zuen horren harira Sortuk zabalduko irudi batek: GALEko arduradun Rafael Vera eta



Maddi Ane Txoperena
BERRIA egunkarian

Jose Barrionuevori hamar urteko espetxe zigorra jarri zieten bahiketarik; Juan Jesus Casas guardia zibil sarjentuak lau urte eta erdi jaso zituen tortura larriak eragiteagatik eta Espainiako Auzitegi Gorenak sententzia bertan behera utzi zuen; bortxaketa eta erailketarik, Jose Diego Yllanesi hamabi urte eta erdiko zigorra jarri zioten; Iruñeko bortxaketarik boskoteari bederatzina urtekoa.... Eta Altsasuko gazteei, kaleko jantzirik zihoazen guardia zibil batzuei parranda batean ustez jotzeagatik, hamahiru urterainoko espetxe zigorra, terrorismo delitua

kenduta ere.

Justizia postfrankista zioen Sorturen irudiak, baina auzartuko nintzateke esatera lehenengo zatia soberan duela hitzak. Proportzionala ez izateaz gain, faxista eta matxista delako Espainiako Justizia, justizia hitza mezezi ere ez duena, bide batez. Auzitegiko atetik sartu orduko badakizulako jada hortik aterata zein izango den zure zoria. Euskalduna bazara, automatikoki, zigorra. Eta emakumea bazara, zure hitza hutsaren hurrena bilakatzea eta salaketa jartzeagatik berriro ere zigortua izatea. Bestela, ikusi zer-no-

lako trabak jasaten ari diren Kote Cabezudo argazkilariak erasotako emakumeak.

Egunkariek beste behin erakutsi digute zein den Espainiaren benetako aurpegia, eta haren barnean segitzen dugu zein izango den gure patua. Izan Mariano Rajoyren edo Pedro Sanchezen gidaritzapean, berdin segituko baitute auzitegiek gure hitzak, biziak eta erabakiak gutxietsi eta oztopatzen. Hemen erabaki eta justizia sistema propioa eraiki beste aukerarik ez dugu, gure proportzioak eta zinezko justizia bat lortu nahi baditugu.



'Bizi-testamentua' egiteko kontsultek gora egin dute Basaburuan

Bizi-testamentua deitu ohi diogu, baina Aurretiazko Borondateen Agiria da bere izena.

Medikuek zenbait neurri hartu ez dezaten agindu dezakegu bertan, esate baterako.

Agiri honen erregistroa 2007an sortu zen, baina urtariletik aurrera osasun etxean egin daitekeenez, gora egin dute Nafarroa osoan. Gure eskualdean geroz eta bizilagun gehiagok galdetzen dute honi buruz, batez ere, Basaburuan, Pilar Larralde, osasun etxeke gizarte langileak esan digunez.



Aurretiazko Borondateen Agiria egiteko interesa handitu dela dirudi, nahiz eta oraindik askok ez dute ezagutzen. Horregatik, hitzaldia antolatu zuen Basaburuko Udalak, Ohianzabal ikastetxean. Olagueko alaba eta 21 urtez Larraintzarren gizarte langilea den Pilar Larralde Zandio eta Raquel García Bosque erizainak azaldu zituzten agiria egiteko xehetasun guztiak. "Nola egin daitekeen galdetzen didate gehien-bat. Azkenaldian geroz eta jende gehiago dator kontsultatzera, batez ere Basaburuko biztanleak, eta alde handiarekin gainera", Larralderen arabera.

"Antzina medikuek erabakitzen zuten dena, orain pazienteek badute erabakitzeke ahalmena", dio García erizainak. Urtariletik ez da beharrezkoa Iruñeko erregistrora joatea, osasun etxean bertan egin daiteke. Erraztasun horrek Aurretiazko Borondateen Agiria egiten dutenen gorakada izugarria eragin du. "Na-

farroan 6.500 pertsonak egin dute bizi-testamentua, horietatik 1.100ek urtariletik hona", baieztatzen du Pilar Larralde.

Nolako osasun laguntza hartu nahi dugun adieraztea da helburua, momenturen batean, istripu edo gaixotasun baten ondorioz, erabakiak hartzeko ezgai bagara, medikuek gure nahiak zeintzuk diren jakin ditzaten. "Gaur egun arraroagoa da, baina garai batean eriotza saihesteko edozer gauza egiten zuten medikuek, eta horrek sufrimendua areagotzea eta bizitza behar baino gehiago luzatzea eragiten zuen", García dioenez. "Gure erabakiak beteko direla jakiteak lasaitasuna eragiten du. Aldi berean, erabaki gogorak gure senideek hartu beharra saihesten dugu, erraztasunak ematen dizkiegu momentu zail horietan".

ZER IPINI DAITEKE?

Interneten aurkitu ditzakegu 3 eredu: Osasun Departamentuarena, Duintasunez Hiltzeko Eskubidea

elkarteak proposatzen duena eta Apezpiku-Ba-tzarrak proposatutakoa. Baina guk egindako berri bat ere sortu dezakegu.

// Gure erabakiak beteko direla jakiteak lasaitasuna eragiten du. Aldi berean, erabaki gogorak gure senideek hartu beharra saihesten dugu"

Osasun egoera zehatzetan kontuan hartu beharrekoak idatzi daitezke, tratamendu jakin batzuk onartu edo errefusatu, baita egoera horietan hartu nahi diren zainketei buruzko jarraibideak ere, zunda gastrikorik ez ipintzea edota dialisirik ez egitea, adibidez. Halaber, hil eta gero organo edo ehunak eman nahi diren zehaztu daiteke bizi-testamentuan. Azkenik, nahiz eta gaur egun eutanasia legezkoa ez izan, jaso-tzeko nahia adierazi daiteke, gaixotzerakoan onartuta balego.

Gainera, Larralde gomendio batzuk ematen ditu: "Zuen mediku eta erizainarekin hitz egin bizi-testamentua



idatzi baino lehen, beraiek argituko dizkizue hobeto zalantzak. Hitz egin dugun guztiaz gain, hileta eta ehorzketari buruzko jarraibideak ere zehaztea garrantzitsua da”.

NOLA EGITEN DA?

Hamasei urtetik gorakoek edo emantzipatutako adingabeek idatzi dezakete bizi-testamentua. Osasun etxean gizarte langilearekin egoteko ordua eskatu eta berak erregistratuko du agiria. Gure eskualdean, Larraintzarko osasun etxera joan beharra dugu, eta Pilar Larralde Zandio bera da arduraduna.

// Konfiantzako norbait izendatu ordezkari, zuen lehentasunak ezagutzen dituen norbait, eta aldi berean familia guztiarekin

Agirian ordezkari bat izendatu daiteke, adin txikikoa ez den edonor, familiakoa edo gertuko lagunen bat, adibidez: “konfiantzako norbait izendatu ordezkari, zuen lehentasunak ezagutzen dituen norbait, eta aldi berean familia guztiarekin hitz egin”, azpimarratzen du Larraldek. Gure NANaren eta ordezkariarenaren fotokopia eman behar diogu, dokumentuarekin batera, berak erregistrora bidaltzeko. Ongi gorde dela ziurtatzeko, gutuna iritsiko zaigu etxera, gure erregistro zenbakiarekin. Gainera, gure historia klinikoan gehituko dute. Hala ere, edozein momentuan aldatu dezakegu, dokumentu berri bat gizarte langileari eman eta automatikoki aurrekoa ordezkatzeko du.

HITZALDIA EGIN ZUTEN BASABURUAN

Pilar Larralde Zandio gizarte langileak eta Raquel García Bosque erizainak Ohianzabal ikastetxean eman zituzten azalpen guztiak. Bertara hurbildu ziren 10 bat biztanle, bizi-testamentuaren inguruko jaki-minarekin. Aurretiazko Borondateen Agiriak duen garrantzia azpimarratu zuten ateratakoan.



**// Egingo dudala nste dut, eta ez dut denbora gehiegi pasatzen utzi. Momentu horietan ni errespetatu nazaten nahi dudala, eta familia, garbi izateko zer den nik nahi dudana, prozesu hori errazteko”,
Edurne, 46.**




**// Bai, egingo dut, segur aski laster, garrantzitsua da. Ez dut gustuko medikuek nahi dutena egitea, Nire etorkizuna eta hiltzeko baldintzen inguruan erabakia hartzea beharrezkoa iruditzen zait”,
Mikaela, 55**



**// Soberan dagoela nste dut. Hau da, ez genukeela ezer ez sinatu behar, medikuek guretzako hoberena dena erabakiko dutela jakintzat jo beharko genuken. Ez dutela gure heriotza alferrik euzatuko, esate baterako. Esaten dute bizitza euzatzen digutela baina heriotza besterik ez digute euzatzen, hemendik urte batzuetara bizi-testamentua egitea beharrezkoa ez izatea espero dut”,
Juma, 60**

**Gaztanberaren eguneko
argazkiak**
Eltzaburun, maiatzaren 10ean





Mintzakideak, euskararekiko konpromisoa astero

Bi talde daude, bata Basaburuan eta bestea Ultzaman. Arratsaldeko 18:00etan biltzen dira astero: lehenengoa Jauntsaratsen, Apeztegiberrin, astelehenero eta bigarrena, Arraizko ostatuan, asteazkenero. Hala ere, mintzapraktika saioetatik kanpo ere euskara egiten saiatzen dira, eta guztiok egin behar dugula esfortzua diote. Gainontzeko herrietan ere talde gehiago sortzeko gonbitea luzatzen dute.



Basaburua

Mintzakide hauek 2 urtez daramate astelehenero Apeztegiberrin elkartzen. Inma Fernández Vicuña, Maika Lomillos García, Mikel Loinaz Sala, Cristina Mejía Rodríguez, Laura Gurbindo Bomba eta Miquel Lara Delgado dira; eta Beramendi, Aizarotz, Etxaleku eta Erason bizi dira. Ez dute gai zehatzik aukeratzen eta prestatzen, baizik eta momentuan bururatzen zaienari buruz hitz egiten dute.

Zenbat denbora daramazue euskara ikasten galderari “buffff bizitza osoa”, erantzuten diote, “eta urte asko-

tarako izango da...” irakurri daiteke euren aurpegietan, nahiz eta maila ona nabaritzen zaien. Horrela esan diet, baina ez didate sinisten. Aditzekin eta baldintzarekin izaten dute zailtasun handiena. “Arantxari eskatu dizkiot baldintzaren arauak, eta horrela erantzun dit eskuekin” [lasai egoteko keinua egiten du], zintzotasunez hartzen dute euskara ikastea. Mintzakide saioetatik kanpo, beti saiatzen dira euskaraz hitz egiten, baina batzuetan zaila dela onartzen dute. Batik bat, inguruko euskalkia, eta azkarregi hitz egiten badiete, ulertzeko arazoak izaten dituzte “guztiok egin behar dugu ahalegina, guk eta inguruko jendeak, edozein zailtasunaren aurrean azkar egiten baitugu salto erdarara”.



Basaburuko mintzakideak Apeztegiberrin biltzen dira

Ultzama

Hau ez da gure inguruko mintzakide talde bakarra, Ultzaman beste talde bat biltzen da, asteazkenero Arraizen. Hauek denbora gehiago daramate, duela 5 urte sortu baitzen jada, eta 4 kide izatetik, 7 izatera pasa da: Arraizko Miren Larraintzar, Yoli Etxenike, Imel Etxenike, Mari Jose Gubia, Txin Eizmendi, Irazoko Felix Gurbindo eta Eltsoko Kontxi Gerendiain. Euskaltegia eta Hizkuntza Eskola utzi eta gero, euskararen erabilera ez galtzeko jarri zuten martxan taldea.

“Gehien kostatzen zaiguna txipa aldatzea da, euskarara hutsean hitz egiteko, baina gurea bezalako talde txiki batean askoz errazagoa da. Gainera, denak gara ezagunak, naturaltasunarekin ateratzen zaizkigu hitzak”, diote. Edozein gaiari buruz hitz egiten dute, egunurokotasunarekin lotura dutenak. Mintzakide talde gehiago sortzeko gonbitea luzatzen dute, hizkuntza aberasteko baliabide ona dela pentsatzen dutelako.

Itsaso batetik bestera

Joan zen urtean, data honen bueltan Gipuzkoako Itsasoko lagunak Basaburuko Itsason izan genituen, izen bereko herria ezagutu nahian. Ezkio-Itsaso udalerrria bitan banatu berritan izan zen hori, izen-erro bereko izenekin anaitze prozesua hasi zutenean, eta gure Itsasora etortzeaz gain, Gipuzkoako Itsasondora eta Lapurdiko Itsasura ere egin zuten bisita.

"Pixka bat begiratuta gure denboran atzera, izenak baino gehiago jarri gaitzake batera. Bi Itsaso elkartuta ozeano bat atera, eta ozeano baten izaera uharte da. Anaitasunak har dezan alaitasunaren herria kan izan bedi batasun luze baten hasiera. Harreman zoragarri bat joan nahi dugu lantzerantz, elkartu gaitzen denok anai-arreben antzera"
MAJDER AUZA

Oraingoan Basaburuko Itsasoko biztanleak izan dira Gipuzkoako Itsasora joan direnak. Maiatzaren 27an autobus bete lagun atera zen Basaburutik, herritar guztiak kasik. 60 biztanle dira herrian, eta lau-pabost baino ez ziren herrian geratu, gainontzekoak Gipuzkoara bidean jarri ziren.



Egunaren kronika

Goizeko 11ak aldera iritsi ziren nafarrak Mandubira eta handik, Kizkitzara bidean jarri ziren nafarrak eta gipuzkoarrak denak elkarrekin, baseliza erakutsi eta ha-maiketakoa egiteko asmotan.

Itsasora bidean jarri ziren gero maldan behera, eta segituan ziren Itsasoko plazan. Bertan, harrera ofiziala egin zieten gipuzkoarrek basaburuarrei aureskua dantzatzuz, Itsasoko alkate andrea Mari Jose Marinelarena eta Basaburukoa, Esther Lakasta buru zituztela.

Alkateen hitzaldien ondoren herriko gazteen itsas-dantza izan zuten eta basaburuarrek bertso hunkigarria oparitu zieten gipuzkoarrei, bai kantuz eta baita bi herrien armarriein apaindutako koadroan ere.

Bazkaltzeko garaira arte, Basaburuko Itsasoko txaranga-gaz alaitu zuten herriko plaza, berriz ere giroa alaitzeko elkartu zirenak. 160 lagun elkartu ziren bazkaltzeko, bi herrietako lagunak elkarrekin. Kantuan ere aritu ziren, eta arratsaldean beste bisita batzuen ostean Basaburura buelta egin zuten gure itsasoarrek.



Basaburuko Itsasoko txaranga giroa alaitzen

Itsaso herri izenaren etimologia

Ez Basaburukoak, ez Gipuzkoakoak ezta Lapurdikoak ere ez dute itsasorik, horrek herri hauen izenaren jatorria aztertzeraz garrantzitsua. Teoriarik garatuenak dio "isatsa" deituriko landarearekin harremana duela (latinez *Cytisus scoparius*; gaztelaraz, retama), eta beraz, Itsaso izenak isatsak dauden lekuari egingo lioke erreferentzia. "isats > itsas" aldaketa euskaran ohikoa den konsonanteen arteko metatesi bidez gertatzen da, honela, landare berari "itsasa" eta "isatsa" esaten zaio lekua arabera, "irudi/iduri" aldaeran bezalaxe.

Basaburuko Itsason isats landare ugari daude noski. Eta landare honek erabilera ugari izan ditu, besteak beste erratzak egiteko erabili izan da. Gainera, Basaburuko Itsasoko etxe batean, erratzak egiten omen zituzten.



Gipuzkoako Itsasoko dantzariak



ARDO FREXKOTIK

Euskara hil egin da (I)

1953garren urtean hil zen Etsaingo azken euskalduna: Urbano Erro Yaben. Hori jartzen du behintzat

Etsaingo kanposantuan dagoen hilarrian:

-EMEN DATZA ERRO YABENDAR URBANO, LANDA ETXEKO SEMEA-

-ERRIONTAKO AZKENEN EUSKALDUNA -1953 URTE-

-GOYAN BEGO-

Landakoetxeke semea zen Urbano eta Carlos Amat mediku euskaltzalea, kasta berekoa, harria jarrazti zuena.(1)

Noiz hasi zen euskara galtzen Etsainen? Urbanok etxean ikasiko zuen euskaraz, bi gurasoak euskaldunak baitzituen. Eta karrikan ere bai, orduan karrika euskalduna baitzen. Baina momentu batean euskararen dako karrika ere galdu zen. Haurrak hasi ziren erdaraz mintzatzen.

Eta gero, tarrapatan euskararen gainbehera etorri zen. Erreka zola jo zuen laster, oso laster. Euskaraz bazekiten ia etxe guzietan baina euskaraz aritzeko ohitura galdu zuten agudo. Horrela izaten da hizkuntza baten behin-betiko heriotza.

Geroztik, herri askotako kanposantutan jar zezaketen antzeko harria: Emen datza ... Orain ez hainbeste urte, Anueko eta Odietako herri gehienetan.

Eta herrenkadan etorriko dira besteak. Iaz, Lantzen, azken edo azken aurreko euskalduna hil zen.

Lehenik karrika galdu, eta laster etxea, oso laster etxea, hori izan da gure hizkuntzaren historia.

Gure ezagueran, karriketan euskaraz entzun zitezkeen herrietako zerrenda egiten hasiz gero, hor genituen, Ultzaman: Auza, Eltzaburu eta Alkotz. Baina baditu 60-70 urte umeak karriketan erdaraz hasi zirela. Heriotzarako bide zuzena.

Eta oharkabea, Ultzamako aipatu herri horietan bezalatsu edo segidan, beste batzuk joan zitzaizkigun, Gartzaron, Itsaso, Beramendi, Oskotz, Eraso, Urritza ... jendea konturatu orduko aspaldian euskara galdua zuten. Orain zenbat urte? Atera bitza bakoitzak kontuak.

Horiek ere joan ziren, isiltasun itogarrian. Tokia estutu zitzaion gure hizkuntzari. Hala ere, dena dela, hor gelditzen zitzaizkigun beste batzuk, gu

guzion kontzientzia onerako edo txarrerako. Euskara bizi da, esan genezakeen.

Bai, hala zen, batzuetan hobeki besteetan okerrago: Basaburuan, Beruete, Arrarats eta Igoa. Edo Imotz aldean Etxaleku eta Goldaratz: haurrak karriketan euskaraz.

Noizbait bai! Eta oraindik ere jende anitz uste horretakoa da.

Eta ez da egia.

Zenbat urte du euskara desagertu dela umeen ahotik herri horietako karriketan? Hamar? Hamabost? Hogeia?

Batzuetan agonia luzea izan da, besteetan motza. Baina euskara itzali egin da haurren mintzoan.

Eta Etsainen, Zenotzen eta Zigandan bezala, laster hil egingen da herri horietako etxeetako sukalde txokoetan. 10 urte? 15 urte? Ez gehiago.

Euskara hil egin da, eta hil dela jabetu eta elizkizunak ateratzea dagokigu. Ezagutu dugu senarra hil eta bere gorputza zazpi egunez eduki izan zuen alarguna. Eta istorioetan ere hor dugu Zuberoko kantu batean nola emateak eduki zuen zazpi urtez senarraren gorputza etxean.

Ez dezagun guk karrikako-euskara hila eduki beste zortzi urtez, erabat kirastu artio. Garaia da hil dela gaztigatzeko jendeari eta behar den hileta bilkura egiteko.

Elkarrekin bildu, solastu, eztabaidatu...; eta, besterako ez balitz ere, bil gaitezen ardo frexkoz horditzeko ostatu epelen batean.

Zure zain, adiskide!

(1) Gero jakin izan dugu Etsainen, Urbano hil ondoren ere bazirela euskaldun gehiago. Ez zela azken euskalduna, alegia. Dena dela, gure hizkuntzaren historian horrek ez du inportantziarik.



Euskaraldia aurkeztuko dute Aizarotzen ekainaren 22an

Azaroak 23 eta abenduak 3 bitarte izanen da Euskal Herriko bazter guztietan, aldi berean. Baita gure eskualdean ere, baina horretarako antolatuko duen talde bat beharrezkoa da, herrialde bakoitzak testigua jasotzen baitu Euskaralditik, bere kabuz aurrera eramateko. Gurean bi talde sortu dira, Ultzaman, Odietan eta Atetzen bat eta Basaburua eta Imotz biltzen dituen beste bat, 8 eta 10 pertsonen artean osatutakoak. Hala ere, lan mordo bat geratzen da aurretik, eta ahalik eta jende gehiago batzea eskertuko lukete. Aizarotzen aurkeztuko dituzte xehetasun guztiak ekainaren 22an.



Euskararen erabilera sustatzea eta zenbait ohitura aldatzea dira helburuak. “Euskaraldiak planteatzen duena paradigma berri bat sortzea da. Orain arte euskal hiztunen eta euskal militanteen gain jartzen zen euskara bultzatzeko ardura hori, bereziki umeei eskatzen zitzaien. Orain beste gauza bat planteatzen da: euskaraz ongi ez dakien hori edo euskaraz jakin baina ausartzen ez den hori bultzatu behar dugu”, azpimarratzen du Edurne Koch, Basaburuko talde motorreko kideak.

Horretarako euskaraldian mota ezberdineko pertsonak parte hartuko dute. Alde batetik, “ahobiziak” egonen dira, euskara ulertu eta hitz egiten dutenak. Bestetik, eta oso garrantzitsuak, “belarriprestak”, euskara ulertu bai baina hitz egiteko zailtasunak dituztenak. “Badau-de euskaltzale asko euskara maite dutenak baina ez dakitenak. Planteatzen den ariketa, horiei hurbildu eta haiekin euskaraz aritzeko baimena eskatzea da, ematen badigute, nahiz eta gero beraiek gazteleraz erantzun, jarraitu beharko diegu euskaraz hitz egiten. Orduan elkarriketa elebidunak sortuko dira, eta ez gaude

ohituta, orain automatikoki erdaraz erantzuten badigute, erdarara pasatzen gara berehala, hori da aldatu nahi dena”, gehitzen du Kochek.

// ***Euskaraldiak planteatzen duena paradigma berri bat sortzea da, euskara ongi ez dakien hori bultzatu behar dugu***

Egutegia martxan dago, maiatzaren 12an eman zuten izena Iruñean antolatu zen jardunaldi batean eta orain aurkezteko eta jendea atxikitzeako ordua da. Ekainaren 16an Burlatan izango den prestakuntza saiora joanen dira eta 22an Aizarotzen aurkeztuko dute eskualde mailan egin nahi dutena. Azkenik, udako oporretatik bueltan, irailean, ahobizi edota belarriprest gisa izena emateko epea irekiko da.

Joxerra: "Zerotik hastea ez zen erraza izan, ez geneukan dirurik ezta bezerorik ere, baina ilusioa geneukan"

Duela 14 urte, Josu Berasain Etxeberria eta José Ramón Berasain Berasain lehengusuek zabaldu zuten Hobeki tailerra, Ultzamako Elordi Poligonoan. Urte batzuk Iruñean lan egin ondoren eskualdera itzultzea erabaki zuten eta orduz geroztik Ultzaman bizi eta lan egiten dute, diotenez, gustura. Arraizko bentan bizi da Josu eta 34 urte ditu; Auzan José Ramón, 45 urte ditu berak. Beraiekin batera, Josuren anaiak egiten du lan tailerrean, Eneko Berasain Etxeberria.



Gurea bezalako eskualde batean, ongi funtzionatzen du tailerrak?

Josu: Bai, bai, hemengoen artean denek ekartzen dute autoa, edo ia denek, baina Iruñetik ere etortzen zaizkigu bezeroak.

Orduan Iruñera joatea ezta pentsatu ere?

Josu: Ez, ez, Iruñean egon ginen lanean biak eta hona etortzea erabaki genuen, beraz pentsa! Lana hurbil daukagu gainera, eta gustukoa dugun lana, beraz ongi gaude.

Zenbat denbora egon zineten Iruñean?

Joxerra: Josu hiruzpalau urte eta ni hamar bat. Ni hasieran tailer batean eta gero Volkswagenen egon nintzen.

Zergatik erabaki zenuten hona etortzea? Ez zeundeten gustura?

Joxerra: Bai, gustura bai, baina ilusioa geneukan hemen horrelako zerbait irekitzeko, herrira itzultzeko eta etxe ondoan lan egiteko. Gainera hemen ez zegoen tailerrik, txapa konpontzeko ezer ez, eta beharra zegoela pentsatzen genuen.

Eta zaila izan zen tailerra martxan jartzea? Zerotik zerbaitekin hastea?

Joxerra: Bai, bai, dudarik gabe. Ez da gauza bera familiak hasitako zerbaitekin jarraitzea edo zerotik hastea, ez geneukan makineriarik, bezerorik ezta dirurik ere. Baina ilusioa geneukan eta aisialdian gutxi gastatuz, lortu genuen.

Lan asko duzuela esan didazue, nolakoa da zuen laneguna?

Josu: Bada, denetarik egiten dugu, beraz egun bakoitzea desberdina da hemen. Hobekin denetarik konpondu dugu, bai autoak, bai traktoreak! Ez da fabrika batean bezala, gauza bera egitea egun osoan zehar, torlojuak estutzen egotea, hemen lan desberdin asko egiten ditugu.

Gazteak zarete, baina pentsatu duzue zuek jubilatzean norbaitek jarraituko duen tailerrarekin?

Josu: Uffff ba biok dauzkagu seme-alabak, baina batek daki! ikusiko dugu!

Maria Iraizoz Cires, Zazpimendi lasterketako irabazlea

“Konpetizio espiritua falta zaidala esaten didate”

Iraizoz Cires familiako beste hiru ahizpak bezala, Maria ere kirolaria da. Azkenaldian mendiko lasterketen inguruan aritu gara beste protagonista batzuekin, eta orain, lasterketa mota honetan bete kirolari bat azpimarratu beharrean gaude. Maiatzeko Zazpimendi trail lasterketa irabazi zuen Eltsoko Maria Iraizoz Ciresek, Atarrabian izandako 44 kilometroko mendi maratokia. Eltson, bere etxean elkartu gara, eta umiltasun handiz erantzun dizkigu galderak:



Garaipen handia, nola bizi izan zenuen?

Azkenak atera ginen, Oskarrek (beti berarekin korrika egiten duen lagunak) zapatilak ahaztu zituen eta irteerara oso juxtu iritsi zen. Dena den, ni batere presiorik gabe atera nintzen, nire lehenengo mendi maratokia izan zen, eta helmugara iristea zen nire helburua. Lasterketa aurrea joan ahala ongi sentitu nintzen eta azkenean irabaztea lortu nuen.



Zenbat denbora behar izan zenuen?

7 ordu eta 17 minutu inguru. Denbora gehien kostatu zaidan lasterketa izan zen. Asfaltoan maratokiak egin izan ditut, baina ez dira 4 orduetatik pasatzen. Mendian, dena den, erritmoa mantsoagoa da, geldiune gehiago daude...

Bazenekien irabazteko aukera zenuela?

Bost ginen lasterketa luzean aritu ginen neskak. Bigarren mendian bi neska aurreratu ostean bigarren postuan jarri nintzen, eta bakarra nuen aurretik, Amaia. Bere parean jarri nintzen, baina beheakoan distantzia utzi nion, banekien osasun arazoak izan zituela, eta agobiatu ez zedin atzean geratu nintzen. Ez nuen berari irabazteko asmorik, elkarrekin iritsita ere irabazten utziko nion, berak gehiago merezi baitzuen. Konpetizio espiritua falta zaidala esaten didate, baina nire helburua helmugara iristea baino ez zen.

Hori ona da ala txarra?

Konpetizio espiritua ona da horrek hobetzeraz eramaten bazaitu. Baina kasu honetan, Amaiak (lehenengo postuan zihoana) presio handia izan zezakeen, eta nik aurreratuko

banu psikologikoki oso kaltetuta geratu zitekeen.

Kirolean noiztik ari zara?

Eskubaloian aritu izan naiz txikitatik, nire ahizpak bezalaxe (Ana, Ainhoa eta Leyre). Eta korrika 5 urte daramatzat, 4 asfaltoan eta bakarra mendian.

Etxeko guztiak kirolariak...

Bai, batzuk gehiago eta besteak gutxiago, baina lau ahizpak kirolean aritu izan gara. Eskubaloian elkarren aurka ere aritzen ginen, bik Ultzaman eta beste biek Donezteben egiten baikenuen. Eta herri kirolean ere aritu izan dira Ana eta Ainhoa. Orain Ana Irlandara joan denez, Ainhoarekin arpanean aritzea tokatu zait niri.

Arpanean zer moduz?

Sanferminetan daukagu txapelketa, eta maratoietan bezala, proba amaitzera aterako naiz plazara.

AINHOA (GU GINEN TOKIRA AGERTU DA): Ez! Irabaztera atera behar gra! Kontua da Mariak ez duela entrenatzeko astirik. Arpana oso gogorra da, entrenamendu handia eskatzen du eta ia ez dugu ezer entrenatu.

17 urtetan ezkondu Eta eliz-atarian pilotan gelditu

Lataxa, izen horrekin zuten ezagutzen gure aurrekoek Jose Manuel Latasa Eltzaburu zena. Eta Joxe Mañul bezala ere bai. Gorputz ttikiko gizona, bere aita bezala, hortaz Lataxa eta Lataxatarrak.

Etxalekun jaio zen 1875eko irailaren 10ean eta Beramendin hil zen 1964ko ilbeltzaren 12an. Zahartua hil zen, 89 urte bazituen-eta. Etxaleku, Ihaben, Beramendi eta Udabe, hurrenez hurren, horiek izan zituen bizitutako herriak.



Hemen dugu Joxe Mañul Latasa, Lataxa zena, xahartua, bere biloba Manuela Barrenetxea Latasarekin eta honen hiru seme zaharrenak: Zaharrena: Carlos, besotik heltzen diona (+). Erdikoa: Saturnino, eskutik duena (+). Tttikiena: Jose Cruz, amaren eskutik.

JAIOTERRIA UTZI, BAINA LASTER ITZULI ZEN EZKONTZERA.

Joxe Mañul, Aztarrainen jaioa izanen dugu aurki, zeren sendotza bi urtetan hartu zuen eta orduan behintzat etxe horretan bizi zela jartzen du (1)

Sendotza, bere anaia Juan Cruzekin batean egin zuen, bi urtez zaharragoa zena. Ez ziren senide gehiago.

Dena dela, 1890. urtean Joxe Mañulek 15 urte zituenean joan zen familia guzia Ihabena, Elizmendiko maistar (Garai hartan, etxe honek bi bizitza zituen)

LATAKAREN EZKONTZA XELEBREA

Lataxari ama, Micaela, gazterik hil zitzaion, 1893ko abenduaren 13an, eta etxean emakume bat behar, eta aitak, Franciscok, ezkonarazi zuen. Bera ere

sasoian zegoen, 51 urte baitzituen, baina seme gazteena ezkonarazi zuen. Eta zergatik ez zuen seme zaharrena ezkonarazi? Ez dakigu.

Dena dela, kontua da Maria Petra Saez Mariñelarenarekin ezkonarazi zutela, 26 urteko neskatxarekin, 1894ko otsailaren 3an, 8 urte zaharragoarekin.

Hala dugu aditzea Etxalekun ezkontza honetaz: Lataxai, gaztia zela, ama hil ben'tzitzaioken eta itxan emakumeik ez eta semia ezkonduazi ben'tziten. Etxalekuko elizan ben'yun eta Lataxak 17 urte besteik ez eta ezkondu ta elizetik atiatzekoan, eliz-atariin geldittu mutikuakin, pillotan, alajainkoa!

Bakarren bati pilotan beharrean jostaketan gelditu zela ere aditu izan diogu. Petrak, senar gaztea etxera itzuli zitzaionean ez ote zion belarrondokoren bat eman? Larri ibili! (2)



IHABENEN BIZITU ZEN URTE ASKOZ

Ezkundu eta aitaren etxean gelditu ziren bizitzen; esan dugun bezala, Elizmendin. Bost haur izanen zituzten, mutiko bat eta lau neskatok: Juana, Jose, Estefania, Martina eta Francisca.

36 urtetan alargundu zen Joxe Mañul, andrea tifus batek eraman baitzuen beste mundura, 1911ko abenduaren 13an.

ALABA ZAHARRENA EZKONU ZITZAION HEMEN

Neska zaharrena, Juana, Udaben bizi eta Lezaungo semea zen Braulio Barrenetxea Argandoña kamineroarekin ezkondu zen, 1918ko azaroaren 13an. Ezkontza aktan ikusten denez, senar-emazteak bazekiten firmatzen, eta baita gure Joxe Mañulek ere. Garai hartarako ez zen gutxi!

Senar-emazte gazte hauek Ihabenen jarri ziren bizitzen, Lataxatarren etxean, hau da Elizmendiko maistarretxean.

Semea ere, Jose, Basaburuan gelditu zen, Itsasoko Antxotonera ezkondu baitzen Manuela Iriarte Elizalderekin, 1928ko maiatzaren 9an.

Beste bi alaba, berriz, oso gazterik, Argentinara joan ziren. Askoz ere beranduago hirugarren bat, senarra eta 11 umerekin batera.

BERAMENDIRA JOAN ZIREN ONDOREN DENAK

Braulio eta Juanari, Ihabenen hiru ume zaharrenak jaio zitzaizkien, 1920, 1922 eta 1924an, hiruak mutikoak.



Juanita Latasa Saez, Lataxaren alaba zaharrena. Hemen bere biloba Juantxo besoetan duela. Amautxi.

1925. urtean edo, Beramendira pasatu ziren bizitzera, senar-emazteak eta hiru mutikoak, Etxeberrira. Baita Joxe Mañul ere, gure protagonista, Francisca alaba gaztenarekin. Bi familiak etxe berean bizitu izan ziren. Eta hor etorriko ziren, bata bestearen ondoren, bost alaba, azkena Rufina.

Zaharrenetik gaztenera, hona hemen senide guziak: Manuel, Francisco, Juan, Anunciación, Francisca, Manuela, Maria Trinidad eta Rufina Barrenetxea Latasa.

Rufina, 1937ko ekainaren 4an jaioa. Bai, baina lehenago izan zuten zoritxarra! Aita, Braulio, kamineroa, hilabete bat lehenago hil baitzen 46 urte zituenean.

Gure gaurko protagonistari tokatu zitzaion aurrera egitea, batez ere neskato gazteenen hazketan. Lana eta nekea izan zuen Lataxa gizajoak! (Bilobetan zaharrenak 17 urte zituen; gazteena oraindik sabelean zen)

1949-1950an edo etxetz aldatu ziren, Mitxeleneko maistarretxera, eta ostatua jarri zuten. Eta ez arrakasta txikiarekin gainera. Etxaleku, Itsaso eta nonahitik ere jendea biltzen zen igandetan.



Braulio Biurrarena Barrenetxea eta Elena Beloki Etxarriren ezkontza.

Ezkerretik eskuinera:

Pilarin Biurrarena Aldanondo Trini Barrenetxea Latasa, Lataxaren biloba gaztenaren aurrekoa.

Julia Biurrarena Aldanondo Braulio, ezkonberria

Bautista Biurrarena Aldanondo Elena, ezkonberria

Juanito Bildarratz Iribarren Rufina Barrenetxea Latasa, Lataxaren biloba gazteena.



JAIOTERRIA BETI OROIMENEAN

Nola diren gauzak! Odol gabeen bat ez bada behintzat, sorterria ez da inoiz atzentzen! Joxe Mañulek ere ongi gogoan zuen bai Etxaleku. Eta hori erakusten duena eta bukaera emateko hona pasadizoa:

Behin Etxalekuko Patxi Erbiti, Zapatifiñeneko semea, oso gazte zela Beramen-dira joaten omen zen ostatura bere adiskideekin eta Lataxak, ordurako zahartua, jakin zuenean etxalekuarra zela, hala esan omen zion:

-Hi Etxalekuko zein itxetakoa yaiz?

-Ni Zapatifiñenekoa.

-Zapatifiñenearraza eeerki kanbiatu'itek

-Zeatik?

-Lenau hire attune han eoten yun atalgañetik beire mutur haaaaundi batekin!

Zapatifiñeneko atariaren aurrez-aurre izaki Elixondo, Lataxa bizi zen etxea, eta ez gusta-tzen nonbait horrela begira egotea!

Eta Patxi Erbiti gizon gorputz ttikikoa izaki eta burua ere arabera, alegia, bere aita-txi Francisco ez bezalakoa. Lataxak Etxalekutik alde egindakoan Zapatifiñenearra bi etxe-koandre kanpotik ekarriak izaki, lehena Muskizko Artonekoa eta azkena Etxalekuko Ape-zenekoa. Arraza erabat aldatua, jakina!

OIHANEAN GALDU. ETA HERIOTZA

Zahartutakoan, atsalde batez Arruitz aldeko Gesalean galdu zen. Hala kontatu digu Uda-beko Dorreko maistarretxeko Juan Bildarratz Iribarrenek:

Hauek bazuten Arruitz aldean soro handi bat, Gesalean, eta igande atsalde batez –asko-tan joaten zen- buelta bat egitera joan zen hara eta egin zen galdu, han. Eta gaua pasatu zuen han, Aldazko terrenoan, Udabe aldera etorri beharrean joan zen Aldatz aldera; eta orbela eta iraztorra-eta bazegoen bilduta eta barnean sartuta pasatu zuen gaua.

Atsalde ilunabarretik hasi ginen denak bildu eta beraren bila, jende asko, eta gaueko hamabiak bitartean hor ibili ginen mendi guzian barna baina ez zen deus azaldu. Bai-na biharamunean, Aldatza azaldu zen bera, eta Aldatzetik ekarri zuten Mariano Garroren DKV batean. Hartu eta ekarri zuten etxera. Orduz geroztik ez zuen onik izandu. Orduan 86 urte edo izanen zituen.

Bai hala da, Juanitok kontatu bezala laster samar hil zen, 1964ko neguan, hain zu-zen, 89 urtetan.

ANDREAREN KONTUZ ZERBAIT

Esan dugu Joxe Mañul Latasaren andrea, Maria Petra Saez Mariñelarena zela. Gar-tzarondarra. Urte bakan batzuk besterik ez zeramatzan Etxalekun ezkondu zenean. Aita Basaburukoa zuen, Vicente Saez, eta ama, berriz, Maria Engracia Mariñelarena, Etxalekukoa. Zein etxetan bizi zen ez dakigu.

Saeztarrak Etxalekun sarrera handia zuten, dirudienez, Maria Engraciaren beste bi ahizpa ttiki ere hemen baitziren 1880. urterako, Artzagan (Orain Mokorrokoak di-renen aurrekoak bizi ziren bertan) eta Marimigeleneko bordan, Aldaregiatarrak bizi ziren bordan; 10 eta 8 urtekoak hurrenez hurren.

Lataxaren ezkontzakoan, Petraren aita, Vicente, Somorrostron bizi zen, meatzaria izanen zen. Castillatik eta, jende asko joan zen Bizkaiko burdina minetara. Eta Nafa-rroatik ere bai; hegoaldetik batez ere.

Saez deitura arraroa iduritu eta begiratu dugu aurrekoetan. Eta ikusi dugu, bere bi-rraitona Murillo del Frutokoa zela eta Orokietara etorria. Zergatik etorri ote zen Oro-kietara? Orokietako Olara etorria ote zen, burdina fabrikara? Edo minetara? Ez dugu Orokietako artxiboa ikus ahal izan.

Petra, goiti aipatu bezala, oso gazterik hil zen, 42 urtetan, lhaben.

BERE GURASOAK

Bere gurasoak Francisco Latasa Urri-tza eta Micaela Eltzaburu Iratzezabal ziren, lehena Etxalekukoa eta bigarrena Oskozkoa.

Goitikoetxean jaiotakoa dugu Francis-co eta ezkonduak omen etxe batean bai-no gehiagotan bizitutakoa: Mokorroa, Aztarrain, Dorrotozarrea eta Elixondon bai gutxienez.

1842 eta 1890 arteko garaia ziren haiek, garai latzak eta Etxalekuko fami-lia gehienak pobreak, baina askoz ere pobreagoak maistarrak. Etxalekun eta Euskal Herri guzian. Bi karlista gerrak erabat errontziatua utzia zuten gure al-derdia.

Francisco hau ere arrunt pobrea zen. Hala adierazten digu ondoko gertaera honek, entzundakoa hitzez hitz jarri du-gunak:

Behin, "Lataxa", Francisco, alegia, ta-bernara joan omen zen eta bertan Ma-rimigeleneko maistarrarekin hizketan hasi eta esan omen zion:

-Hi, txerria saldu behar nitek. Goazen biok Iruñera.

Eta hala erabaki omen zuten, bihara-munean Iruñera joan behar zutela biak txerri banarekin. Bakoitzak zuen baka-rrarekin, jakina.

Marimigeleneko maistarrak, sosik ez eta bere nagusiari esan omen zion:

-Hi, behar duk txerririk?

-Ez, ez diat behar txerririk.

-Ekarrak ba pezta bat, saltzera joan behar diat Iruñera; eta bideko gastueta-rako, bada ez bada.

Horrela abiatu ziren, goizean goiz, Iru-ñe aldera eta han, txerri ferian -oraingo kartzela ondoan izaten omen zen- sal-tzen jarri eta inor ere ez hurbildu eros-tera.

Marimigeleneko maistarrak bere pezta-rekin jan omen zuen eta bestea barau-rik.

Horrela izan zen bidaia. Txerriak saldu ez eta gauean, berriz, bueltan etxera.

Francisco Latasa 1914ko otsailaren 16an hil zen, pneumoniak jota.

OHARRA.-Kartzela orain urte batzuk bota zuten, Larreinako dermioan edo zegoena.

LATASAREN UMEAK

Lataxaren bost umeetatik, bi ditugu hemen ezkonduak, Juanita eta Jose Latasa Saez. Lehena Beramendin bizitu zena eta bigarrena Itsasoko Antxotonera ezkontzaz joan zena.

Beste hiru alabak, berriz, Argentinara joan ziren. Alde batetik, Estefania eta Martina oso gazteak zirenean. Eta bestetik Francisca edo Pakita, askoz ere beranduago, Espainiako gerra ondoren. Hau Jose Mari Urrutiarekin ezkondua zen eta Lekunberriko Mitxausenean bizitu zen. Hamaika ume izan zituen. Familia guzia joan zen, bere ahizpengana, La Platara.

Eta iloba bat ere eraman zuen berarekin, Francisca Barrenetxea Latasa.



Juanito Bildarratz Iribarren eta Rufina Barrenetxea Latasa senar-emazteak. Azken hau dugu Lataxak hazi zituen zortzi bilobetako gazteena.



Pakita Barrenetxea Latasa, Argentinara, La Platara joan zena. Bere 60 urtetan hona bisitaz etorria, bi seme-alabekin: Miguel Angel eta Estela Mariel.



Juanito Bildarratz, Udabeko Dorreko maistarretzeko nagusia

(1) OHARRA.-Guk Aztarrainen jaio ote zen diogu, baina berak Mokorroan jaioa zela esaten omen zuen, hala kontatu digu bere biloba Rufinak. Eta hau izanen da egia. Beraz, jaio eta laster joanen ziren Mokorrotik Azatarraina.

(2) Guk 17 urte zituela entzun izan dugu beti, baina ez da egia, bazituen ezkontzerako 18 ongi beteak. Hemen kontatzen ditudan anekdota hauek Joxe Angel Astiz Marimigelenekoari entzunak ditut batez ere.

OHARRAK:

1.-Lataxaren ezkontzako lekukoak: Francisco Maria Arruitz, Etxalekuko maisua, eta Justo Barberia, Etxalekun bizi zen Imozko idazkaria. Andregaia, berriz, nork topatu ote zion? Maisua ez ote zen ibili ezkontza hau prestatzen? Eta gainera, Arruitzen sortetzeko maistarrak izandakoak ziren Lataxatarrak.

2.-1880. urtean Francisco Latasak bazuen anaia bat Domikenean eta arreba bat Jualpitzenean. Lehena ezkondua eta bigarrena alarguna.

HIZTEGIA:

AURKI: problema.

JOSTATU: jugar. Beti ibili izan du dugun hitza. Gazteak zergatik esaten dute jolastu, hori hitz egin esan nahi duenean hemen? Jostatu ere batuko hitza da.

ARRAKASTA: éxito.

ATALGAINA: ateko leiho handia. Oraindik ere gel-

ditzen dira atalgaina duten ateak.

ERRONTZIATU: abarrikatu, kizkali, xehatu....horrelatsuko esanahia.

BARAU: hemen, baru. Jan gabe egon denbora batez.

MEATZARIA: minero

MINA: meategia

BIRRAITONA: bisabuelo


Urtebetetzeak



MIKAELA



NARE



AMETS

Orreaga Goñi: "Aurtengo liga asko disfrutatu dut"

Iraizozko Orreaga Goñi Bera-Bera taldean aritu da esku-baloian jokatzeko, Donostian ikasten ari baita. Gipuzkoarren bigarren taldean aritu da bera, eta zilarrezko mailara igotzea lortu dute. Bera-Berako lehen taldea ohorezko ligan daukate, onenen artean gainera, eta lehenengo kluba izanen da estatu mailan, bere bi taldeak ohorezko eta zilarrezko ligetan dituenak. Jokalari ultzamarrarekin mintzatu gara:



Bera-Bera taldea. Orreaga 32. zenbakiduna da, eskuineko atezainaren ondokoa

Liga irabazi duzu aurtengo Bera-Bera taldearekin, lorpen handia, ezta?

Bai, beno, ligan berez bigarren gertatu ginen (penaltitan galduta), baina postu horrekin igoera fasea jokatzeko aukera lortu genuen. Gero, Zamoran jokatuak igoera fasean txapeldun izan ginen, eta beraz, zilarrezko ligara igoko gara, betiere klubak ekonomikoki ahal izatekotan.

Ez dago Espainian klubik ohorezko ligan eta zilarrezkoan talde bana duenik, Bartzelonaren talde maskulinoa izan ezik.

Zuk nola bizi izan duzu aurtengo liga?

Aurtengo liga asko disfrutatu dut. Urte asko izan dira Nafarroan eskubaloian aritzen, betikoekin eta betikoen aurka azken finean. Beraz, talde aldaztea, jende berria ezagu-

tzea, jende ezezagunaren aurka jokatzeko... dibertigarria izateaz gain, jokalariei moduan asko ikastera eraman nau.

Eta igoera fasea?

Pastelaren ginda izan da. Taldea ia-ia zerotik hasi dugu aurtengoan, Bera-Berako jokalariek hiru baino ez baitziren lehenengo. Gainontzekoak beste talde batzuetatik etorri gara, eta talde jubenilaren laguntza ere izan dugu. Beraz, gure betebeharrak bakarrik Euskadiko ligan maila mantentzea zen, baina azkenean igoera fasea iristea lortu genuen. Horrekin, guretzat helburu guztiak sobera beteta genituen. Baina hori gutxi balitz, zilarrezko ligara igotzea lortu dugu. Kriston urtea izan da aurtengoa. Ezin hobea aspektu guztietan.

Txilera ikastera joan zara orain, eskubaloian jarraitzeko asmorik duzu?

Txilen eskubaloiaz deskonektatu egingo dut. Latinoamerikara ezin zaitezke edonoz joan, eta beraz, bertako kultura, bizimodua, lekuak... ezagutzeko da nire asmoa. Eta noski, bertako ikuspegia harturik, nire psikologiako ezagutzak zabaldu eta aberastea.

Badakit bertatik bueltatzerakoan dextente kostatzen dela berriz ere hemengo martxa hartzea, eta beraz, ez dut argi eskubaloian jarraituko ote dudana. Baina datorren urtean ez bada, hurrengoan ziur bueltatuko naizela.





2018ko **apirila**.

Gure alderdian, apirilean izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

Apirilean, guk dakigula, ez dugu jaiotzarik izan.

Ezkontzak:

Apirilean, guk dakigula, ez dugu ezkontzarik izan.

Heriotzak:

IMOTZ

Latasa

Rosa Jaunarena Laurenzena, *Etxeberriko* etxekoandrea, apirilaren 21ean,

Muskitz

Emilio Lintzoain Lintzoain, Muskizko apez izandakoa, apirilaren 19an, 92 urtetan.

Javier Luis Chourraut Alonso, Itsasonean bizi zen, apirilaren 30ean hil zen.

ULTZAMA

Iraizotz

Maria Oiartzun Goñi, *Etxeberriko* etxekoandrea, apirilaren 21ean hil zen.



Emilio Lintzoain



Rosa Jaunarena



Javier Luis Chourraut



Maria Oiartzun

NEUMÁTICOS BETELU

Juan Alonso Ortiz

Tailer mugikorra

Pneumatikoen aldaketa

Zulaturako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A

Aizarotz (Baasaburua)

  info@neumaticosbetelu.es
646 47 41 66

-Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
pneumatikoak konpontzera
-Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
-Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR

ELEKTRIZITATEA

 **629 31 53 32 - 722 766 835**

 **Lizaso**

 **karikolaregoitz@gmail.com**



DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL.: 678 623866

argapin@hotmail.com

ZIAURRITZ

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

laster...

Ultzama aldearen berri sarean:

Ordenagailuan, sakeleko telefonoan, tabletean...

Albisteak egunez egun

Herriz herri, bailaraz bailara

Elkarrizketak, erreportajeak

Argazkiak, bideoak, artikulak

Parte hartzea, komunitatea, iritzia

Agenda, urtebetetzeak, eguraldia

Pulunpe eta Esan Erran irratia webgune berean

...eta askoz gehiago...

Badator www.amezti.eus

amezti.eus